



Arartekoaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena. Horren bidez, Ararteko erakundeko datuak babesteko ordezkaria izendatzen da.

Joan den maiatzaren 25ean jarri zen indarrean Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorra, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua. Pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokienez.

Erregelamendu berri horrek ezarritako neurrien artean, 37. artikuluan datuak babesteko ordezkari bat izendatzeko betebeharra agertzen da, baldin eta datuen tratamendua agintari edo erakunde publiko batek egingo badu.

Hori kontuan hartuta, hil honen 12an, Arartekoak ebazpen bat eman du, Ararteko erakundeko datuak babesteko ordezkariaren irudia sortu eta arautzeko.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak eman dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

1. Datuak babesteko ordezkari izendatzea Inmaculada de Miguel Herrán andrea, Arartekoko Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko zuzendaria bera, Arartekoaren 2018ko ekainaren 12ko Ebazpenean ezarritako araubidearekin eta betekizunekin.
2. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari izendapen horren berri ematea.
3. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzea.



Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 18an